

EUSKARA BATU...QUE? (AtopiaRPG partida baterako abiapuntua)

Konfinamendu egunetan bakoitza bere etxean egon da, Netflixek edo antzeko plataformak ikusten, baina orain askatasuna dugun momentu honetan zerbait arraroa gertatu da. Euskara batua desagertu egin da, eta orain arte euskaldunon arean ulertzeko arazoak izan baditugu, arazo horiek handitu egin dira.

JOKALARI KOPURUA: 2-5

FAKZIO POSIBLEAK: Denak, baina maizterrak erabakiko du fakzio bakoitzak ze helburu duen Euskara Batua berreskuratzea lortzen badute.

ZAILTASUNA: Txiki-ertaina

ARRAROTASUNA: Oso egoera arraro, UKRONIZITATE bat gertatu da.

ABIAPUNTUA: Pertsonaiak Andres Urrutia Euskaltzain buruak deituak izan dira ikerketa hasteko, baina sekretupean. Gertatutako ikertu behar dute eta Euskara Batua berreskuratu.

KOKAPENA: Bilbo, Euskaltzaidiako egoitza, Hotel Ercilla eta Vista Alegre zezen plaza (Beste leku esanguratsu batzuk gehitu ditzake maizterrak nahiz izanez gero)

ESZAK: 2 luze eta amaiera.

ITXIERA POSIBLEAK: Jokalariak ez badute Euskara Batua berreskuratzen, Euskal Herrian XXI. Medeko Gudu Zibila gertatuko da.

BERROGEIALDIKO GAITASUN EDO TRESNA EXTRA: Berez dituzten gaitasun eta tresnez aparte, berrogeialdiak beste gaitasun edo tresna bat lortzeko aukera eman die (Sukaldaritza master bat, zumboning abilezia, etxean egindako ogi gogorra, ...)

EGIA: Euskara Batua 50 urte dituen ume oñatiar bat da, itxuraz urte eta erdi besterik ez dituenak eta frantziskotarrez jantzita dagoena. Arturo Perez-Reverte, Espainiako Errege Akademiako kideak, lapurtu du Euskara Batua, Bilboko Club Cocheritoren laguntzarekin, eta Hotel Ercillara eraman dute, hau baita club honen benetako egoitza. Bertan haurrarekin hainbat proba egingo dituzte, Euskara Batua Castellanozko, eta ondoren Cervantesi eskaintzeko nahia dute Vista Alegre zezen plazan.

Jokalarik Euskara Batuaren desagertzea ikertzean, berau gordeta zegoen Euskaltzaindiaren eraikin peko labirinto ziegara sartuko dira, bertan dauden hainbat misterio eta munstro aurkitzeko aukera izango dute (Sa-2n^o RNA robota, Resurreccion Maria Azkue berpiztuta, Maialen Lujanbio orakulua, ...). Maizterrak askatasuna izango du bere labirintoa eraikitzeko, eta okurritzen zaizkion munstro edo lagungarriak sartzeko. Bertan konturatuko dira Euskara Batua ziega baten zegoela eta kateak apurtu dituztela ikertuko dute.

Pista bat aurkituko dute, zezenketarekin lotuta, eta honela lotu beharko dute, Club Cocheritoren lotura. Arriaga atzean dago egoitza, baina lehen esan bezala benetako egoitza Hotel Ercillan aurkitzen da. Bertako segurtasuna pasa ondoren, Arturo Perez-Revertekin lehen aurrez aurrekoa izango dute, baina honek ihes egingo du, sakrifizioa burutu nahian, eta zezen plazara abiatuko da. Bertan izango da azken borroka.

ARTURO PEREZ-REVERTE: Oso boteretsua da, gerra kazetari izandakoa, arma zale amorratua eta OSO ESPAÑOLA. Bere arma nagusienetako bat, twitterren blokeatzea da, baina baditu ezagutzen ez ditugu beste abilezia batzuk.